

Erf.: Animaliak batu eta txakur zerbitzuen tasaren ordenantza
Espediente zk.: 15/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Animaliak batu eta txakur zerbitzuengaitik ordaindu beharreko tasen Ordenantza fiskala onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: Ogasun batzordeak, Animaliak batu eta txakur zerbitzuengaitik ordaindu beharreko tasen Ordenantza fiskala onartzeko proposamenaren aldeko diktamena emon dau.

b) Oinarri juridikoak

Bakarra: Aitatutako Ordenantza fiskalen onarpenerako, Tokiko Ogasunak arautzen dauzan 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan aurreikusten dauzan pausoak emon behar dira:

- Hasierako onarpena Osoko Bilkurean
- Iragarpena BAOn, iragarki taulan eta aldizkariren batetan
- Behin betiko onarpena Osoko Bilkurean, alegazinerik egon ezkeru.
- Behin betiko onartutako testuaren iragarpena BAOn.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015ko abuztuaren 31n

Karmele Muñoa Arrigain
Jarduneko Idazkaria